

# ORIXE BHI



## Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP)



## AURKIBIDEA

	Orr.
1.- GURE EZAUGARRIAK	5
A) SARRERA.-	5
B) KOKAPENA.-	5
C) ESKAINTZA AKADEMIKOA	6
C.1.- DBH	6
C.2.- Batxilergoa	6
C.3.- ZIG-LT gela	7
D) IKASLERIA	7
E) BALIABIDEAK	7
E.1.- GIZA BALIABIDEAK	7
E.1.1.- IRAKASLERIA.	7
E.1.2.- IRAKASLEAK EZ DIREN BESTE LANGILEAK.	7
E.2.- BALIABIDE MATERIALAK	7
F) GURASOAK	8
G) NORTASUN EZAUGARRIAK:	8
H) BALOREAK:	9
2.- HELBURUAK	10
2.1.- EREMU PEDAGOGIKOARI DAGOZKION HELBURUAK	10
2.2.- ERAKUNDE EREMUARI DAGOZKION HELBURUAK	11
3.- ANTOLAKUNTZARAKO OINARRIAK	12
3.1.- Aginte organoak.	12
3.2.- Hezkuntza-komunitatearen partaidetza	12
3.3.- Koordinazio didaktikorako organoak	12
3.4.- Kanpoko koordinazioa	13
3.5.- Zerbitzuak	13
3.5.1.- EZ AKADEMIKOAK	13
3.5.2.- AKADEMIKOAK	14
4.- PLAN NAGUSIAK	15
4.1.- TUTORETZA- PLANA	15
4.2.- ELKARBIZITZA PLANA	21
4.3.- IKT IKASTETXE EREDU PLANA	23
4.4.- "MUGEN GAINETIK" IZENeko-PLANA	23
4.5.- "ZIENTZIAREN EZAGUTZA SUSTATZEKO" PLANA	24
5.- IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUAREN EBALUAZIO ETA BERRIKUSKETA	24



# **“ORIXE” BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUKO HEZKUNTZA-PROIEKTUA “Mundu zabalerako zubia”**

*“Orixe BHIk, ikastetxe publiko izanez, berarengana hurbiltzen diren ikasle guztiek bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunak lortzeko bitarteko ona izan nahi du”.*

## **1.- GURE EZAUGARRIAK**

### **A) SARRERA.-**

Orixe Bigarren Hezkuntza Institutua Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko ikastetxe publikoa da. 1974ko azaroan sortu zen eta hezkuntza eskaintza aldatzen joan da, legeriaren bilakaerarekin batera. Hasieran, Irakaskuntza Ertaineko Institutua izan zen eta Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa (HLO-LOE)n ezarpenaren ondorioz oraingo egoerara iritsi da., Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dago.

Bere garapenean, oinarri sendoak izan ditu eta ditu: euskara eta sustrai kulturalak, berrikuntza pedagogikoa (aurreko mendeko 80 eta 90 hamarkadetan, Orixe Proiektuaren izenarekin informatika munduan aintzindari izanez, egun, IKT ikastetxe eredia izateko bidean, “Zubi berri” proiektua eta atzerriko ikastetxe eta erakundeekin dituen harremanak, ...). Berdin esan dezakegu, garapen jasangarriarekin (Agenda 21) edota elkarbizitzarekin (Elkarbizitza Plana) duen konpromisoa. Guzti honi, tutoretza eta orientabide atalean, ikasle zein guraso bakoitzari zor zaion arreta emanez, eginiko lana gehitu behar zaio.

### **B) KOKAPENA.-**

Orixe Bigarren Hezkuntzako Institutua Tolosako Santa Lutzia auzoan kokatuta dago eta bertan herri honetako ikastetxe publikoak biltzen dira. Tolosa; Gipuzkoako herrialdearen eta Tolosaldea eskualdearen erdialdean kokaturik dago. Eskualdeak 45.000 biztanle inguru ditu eta Tolosan 18.000 pertsona bizi dira gutxi gorabehera.

Gure eskualdea 28 herriz osaturik dago, eta asko 500 biztanle baino gutxiagokoak dira. Tolosan, Villabonan eta Alegian DBHrako eskaintza publikoa dago eta itunpekoa Tolosan, Anoetan, Villabonan eta Ibarra. Batxilergorako berriz, eskualde osoko eskaintza publiko bakarra gure institutukoa da. Eskualdearen ezaugarriak direla eta Orixeren ikasleriaren zati esanguratsu bat herri txikietakoa da.

Egoera soziolinguistikoari begira, ingurune oso euskaldun bat dela esan genezake: batzbeste % 70 euskalduna da (eguneroko erabilera ez da horren altua). Herri txikietan kopuru hori handiagoa da.

Orixe BHIk, Santa Lutzia auzo berean aurkitzen diren Tolosaldea G.M.L.H.I. eta Samaniego L.H. eskolarekin batera, Santa Lutzia Hezkuntza Gunea osatzen du. Tolosako Haurreskola Publikoa ere gure sarean dago. Hauek guztiak, Paper Eskolarekin batera, Tolosako hezkuntz publikoaren eskaintza osatzen dugu.

Egun, Orixen DBH, Batxilergoa eta Zeregin Ikasketa Gela-Lanbide Tailerra (ZIG-LT) ikasketak ematen dira. Nabarmendu beharrekoa da Hezkuntza Sailak gure eskualdeko erreferentetzat hartzen gaituela hainbat beharrei erantzuteko, hala nola, ZIG-LT geletarako. Beste aldetik, Batxilergo mailan, Tolosan dauden bi ikastetxeak, Hirukide-Eskolapioak eta Laskorain Ikastola, Orixe BHIren zentru atxekituak direla aipatu behar da.

Azken urteetan, batzbeste, 67-68 irakaslek lan egiten dute Orixen. Horiekin batera, hezkuntza bereziko laguntzaile bat, 2 administrari, 3 atezain eta Hezkuntza Saileko 3 garbitzaile aritzen dira ( beste 5 garbitzaile azpikontratatuak enpresakoak dira).

### **C) ESKAINTZA AKADEMIKOA**

#### **C.1.- DBH**

DBHk 12-16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu. Ikasle guztiak D ereduan daude

DBHko lehenengo bi mailak Gorosabel eraikinean daude. Bertan, Hezkuntz Premia Bereziak dituzten ikasleentzako bi Laguntza Gelak, HBSP programako gela eta Zubi gela, kokatuta daude. Orixe eraikinean Curriculum anitzeko programa burutzen da.

#### **C.2.- Batxilergoa**

Batxilergoak 16-18 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu. Ikasle guztiak D ereduan daude.

Batxilergoko bi modalitate daude:

- ❖ GIZA ETA GIZARTE-ZIENTZIAK
- ❖ ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA

Irakasgai guztiak eskaintzen dira, bai modalitatekoak bai aukerakoak.

### C.3.- ZIG-LT gela

ZIG-LT gelak 16-20 urte bitarteko adimen urritasuna daukaten ikasleak hartzen ditu. Bere ezaugarriak direla eta, A edota B ereduko ikasleak izaten ditugu. Lan babestuaren mundura sartzeko prestatzen ditugu.

## **D) IKASLERIA**

Kokapenean aipatu den bezala, gure ikasleak, Tolosatik bertatik etortzeaz gain, Tolosaldea eskualdeko herrietatik datoz eta honek aberastasun handia dakarkio hezkuntza komunitateari. Leku ezberdinetan bizi direnen arteko harremanak ahalbidetzen dira. Jakina da, euskaldunen artean, herri batetik edo eskualde batetik bestera ezberdintasunak nabariak direla. Guk egunero bizi egiten dugu hori eta benetan ederra da.

Lehen aipatu dugun bezala, Orixe BHI ingurune oso euskaldunean kokaturik dago, batzbestek, % 70a euskalduna da eta euskaraz bizi da. Herri txikietan kopuru hori handiagoa da.

Kopuru hauei, kanpotik etortzen diren ikasleak gehitu behar zaizkie. Gure hizkuntza ikasteko eta gure gizartean integratzeko beharrezkoak diren pausoak emateko laguntza gisan, Zubi-gela bat antolatuta dago.

## **E) BALIABIDEAK**

### **E.1.- GIZA BALIABIDEAK**

#### **E.1.1.- IRAKASLERIA.**

Azken urteetan, Orixen, batzbestek, 67-68 irakaslek lan egiten dute. Irakasle gehienak behin-betikoak dira 50/67 (% 75). Horietatik 12 maisu-maistrak dira eta DBH1 eta DBH2n aritzen dira. Bestek, Bigarren Hezkuntzako irakasleak, DBHko lau mailetan eta Batxilergoan ematen dute eskola.

#### **E.1.2.- IRAKASLEAK EZ DIREN BESTE LANGILEAK.**

Hezkuntza bereziko laguntzaile bat, 2 administrari, 3 atezain eta Hezkuntza Saileko 3 garbitzaile aritzen dira (beste 5 garbitzaile azpikontratatuak dira).

Zenbait unetan, ikastetxean bertan kanpoko profesionalak aritzen dira berriazko programak burutzen, hala nola, Xera, Hezkuntza afektibosexuala, Hizkuntza indartzeko programa, etab.

### **E.2.- BALIABIDE MATERIALAK**

Orixe BHI bi eraikinetan banaturik dago: Gorosabel eta Orixe. Bietan dauden gela arrunta zein bereziak, maila ezeberdinetako ikasle eta irakasleek erabiltzen dituzte.

Orixe eraikinaren egitura dela eta, mugikortasun mugatua duten ikasleek, eskilaraz beteta dagoenez, oztopo handiak dituzte hainbat geletara iristeko. Jasagarritasunaren aldetik, eraikin hau ez da bat ere sostengarria. Bi arrazoi hauek direla eta, eraikin berri bat lortzeko ahaleginak egiten ari gara.

Bi eraikinetan liburutegi bana daude. Denera, honelako laborategi eta gela bereziak ditugu:

- eGelak (7).
- Arte gela.
- Marrazketa gelak
- Laborategiak (Fisika/Kimika/Biologia).
- Hizkuntza gela.
- Teknologia tailerrak (2).
- 4 informatika gela.
- Lanbide tailerra
- Gimnasioa.
- Balioanitzeko gela.

Honez gain, DBH3 eta DBH4koentzat jangela bat dago. DBH1 eta DBH2koek, Hezkuntza Sailak behartuta, Samaniego Ikastetxeko jangelan izaten dute bere otordua. Honek, antolaketa arazoak sor ez daitezen, koordinazio beharra areagotzen du.

## **F) GURASOAK**

Guraso Elkarte bat dago eta Zuzendaritza taldearekin koordinatzen da. Ikastetxeko Organo Gorenean eta honek dituen batzordeetan parte hartzen dute, baita diru laguntzaren bidez, ikasleen kanpoko ekintzetan ere.

Guraso Elkarteak, Zuzendaritzarekin batera, Guraso Eskola bultzatzen du, haien seme-alaben hezkuntzarekin zerikusia duten gaiei buruzko hitzaldiak antolatuz.

Gurasoak Hezkuntz prozesuan ere oso inplikaturik daude, tutorearekin harreman zuzenak izanez eta seme-alaben orientabidean parte hartuz.

## **G) NORTASUN EZAUGARRIAK:**

Orixe Institutuak, ikastetxe publikoa izanez, berea egiten du Euskal Eskola Publikoaren Legeak diona.

- ❖ ORIXE BHIk, ikastetxeko elkarbizitzaren plana oinarri gisa, bere betebeharrak arduraz bete eta gainerakoek eskubideak errespetatuko dituela agintzen du.
- ❖ Orixe Institutua laikoa eta anitza da, eta errespetatzen ditu bai ikasleen eskubide berdintasuna nola eskola komunitatearen



kontzepzio filosofiko, politiko eta erlijioso desberdinak. Harrera dogmazale edo zuzentzailez eginiko doktrinamenduak, posizio profesionalaz baliaturik eginiko proselitismoak edo fanatismo eta intransigentzia oinarrituriko sektarismoak ez dute lekurik izanen gure artean. Orixen Institutuan erlijioa aukerako jakintzagaia da.

- ❖ Pluralismoa eta eskola komunitateak bere iritzia adierazteko duen askatasuna errespetatzen ditu; balore, arau eta jarrera demokratikoetan oinarritzen ditu bere harremanak.
- ❖ Orixen bat dator adostasuna, eskuartze eta elkarrizketan oinarritzen den lan egiteko erarekin.
- ❖ Irakasleriaren ekimena eta eskola komunitatearen esku-hartzea bultzatzen du; gaiekin gehien loturik daudenei protagonismoa emanez, gurasoak inplikaturik, kontsentsuzko erabakiak hartuz, eta ebaluazioa esperientzi praktikotan oinarrituz.
- ❖ Orixen Institutuak aniztasuna eta desberdintasunak kontutan izaten ditu, ikaslearen pertsonalitatea era normalizatuan eta jeneroak eragindako bereizketarik gabe gara dadin. Hezkidetzan hezitzen dugu.
- ❖ Orixen Institutua bere autonomia garatzen saiatzen da: bai pedagogi mailan bai kudeaketan.
- ❖ Orixen Institutua euskeraren normalkuntzarako ekimenean murgildurik dago.
- ❖ Orixeko ikaslegoa oso anitza da alderdi guztietan, eta hori dela eta aniztasun horri egokiro erantzuten saiatzen gara, ikasle bakoitzaren garapen pertsonal eta akademikoa ahal den haundienak eta osoenak izan daitezela.
- ❖ Orixek egungo eta etorkizuneko gizarteari erantzun nahi dio eta hau globala izanez, ikasleentzako mundu zabalerako zubia izan nahi du. Atzerriko ikastetxe eta erakundeekin harremanak mantenduko ditu.
- ❖ Era berean, teknologia berrietan oinarrituko du bere hezkuntza-jarduera.

## **H) BALOREAK:**

Gizartearen baloreek ikastetxearen hezkuntza norabidean berebiziko garrantzia daukate eta horregatik ondorengo baloreak garatu nahi dira:

- ❖ **JUSTIZIA ETA EKITATEA:** Norberari dagokiona lortzen saiatuz.
- ❖ **ANIZTASUNA:** Denok bakarrak eta desberdinak mundu honetan garelako, jakinarazten duen jarrera.

- ❖ TOLERANTZIA ETA BEGIRUNEA: Eskubideak, norberaren, ondokoen eta inguruaren duintasuna onartu eta baloratu egiten dituen jarrera
- ❖ SOLIDARITATEA, ELKARTASUNA: Besteekiko sentsibiltatea eta konpromezua nahiz interesik gabeko laguntza -pertsonala edota materiala- erakusten duen jarrera.
- ❖ ARDURA: Gizakiak, banaka nahiz multzoka harturiko konpromezuak betearazten dituen jarrera.
- ❖ ZENTZU KRITIKOA: Nork bere burua aztertu, baloratu eta bizitzaren alor guztietan agertzen diren aukeren artean zuzen hautatzen laguntzen duen jarrera.
- ❖ ELKARBIZITZA POSITIBOA: Elkarbizitza errazteko konponbide gisa elkarriketaren bidea bultzatzen duen jarrera.
- ❖ JAKINMINA: beharrezkoa da ikasteko eta ikerketan murgiltzeko duen jarrera zientzilariak behar ditugu gure gizarte honetan.
- ❖ IREKITASUNA: bai ideia berriak artertzeko, bai leku ezberdinak ezagutzeko. Egungo mundu zabal eta global batean bizi ahal izateko duen jarrera.

## **2.- HELBURUAK**

### **2.1.- EREMU PEDAGOGIKOARI DAGOZKION HELBURUAK**

- ❖ Ikasleengan gure gizartearen izaera aniztuna ulertzen laguntzea eta orohar jarrera kritiko eta parte hartzailea garatu eta baloratzea.
- ❖ Ikaslearen ezaugarriak eta aniztasuna kontutan hartzen dituen tutoretza orientatzailea garatzea.
- ❖ Ikasleengan, norberaren heziketa helburuak finkatu eta garatzeko interesa eta motibazioa bultzatzea, bere ahalmen, ezaugarri eta interesak kontutan izanik.
- ❖ Ikasleak benetako erantzukizuna hartzea bai pertsona mailan, bai gizarteari eta bere inguruari nola bere lanari dagokienean.
- ❖ Ikaskideekiko, ikastetxearekiko eta gizartearekiko sentikortasuna eta begirunea izaten hezitzen dira ikasleak.
- ❖ Pixkanaka eta progresiboki lanerako jarrera, ohitura eta teknika egokiak garatzea.
- ❖ Irakurzaletasuna eta idatz adierazpenerako zaletasuna suspertzea.

- ❖ Erantzukizunezko jokabideak bultzatzea, autonomia pertsonala eta norberarekiko estimua garatu ahal izateko.
- ❖ Ikasleei eskaintzen zaien aukerakotasuna hobetzea, honek beren beharrei erantzun diezaien.
- ❖ Ikasgelan egindako lana, ondo prestaturiko eta koordinaturiko eskolaz-kanpoko ekintzen eta ekintza osagarrien programazio egokiaz osatzea eta aberastea.
- ❖ Ikaslearengan jarrera kritikoa indartzea.
- ❖ Ikasleak beraien ikasbidea hautatzerakoan ondo orientaturik egon daitezen, gizartean etengabe gertatzen ari diren aldaketetara hurbiltzea.
- ❖ Ikasleei, hemen nahiz mundu zabalean bizitzeko prestakuntza ematea. Baita ere kanpoko ikasle eta erakundeekin harremanak izateko aukera ematea.

## 2.2.- ERAKUNDE EREMUARI DAGOZKION HELBURUAK

- ❖ Orientabide eta tutoretzan gurasoen esku hartzea ahalbideratzea eta bultzatzea.
- ❖ A.J.A.k ezartzen dituen bideen bidezko gurasoen eta ikaslegoaren parte hartzea bultzatzea.
- ❖ Hezkidetzarekin bat datozen arauak, jokabideak eta orientabideak garatzea.
- ❖ Ekintza maila guztietan euskeraren normalkuntza bultzatzea: deialdiak, eskutitzak, bilerak, kudeaketa, eskolaz kanpoko ekintzak, eta abar.
- ❖ Irakasleak eta tutorea eragile nagusiak diren orientabidea garatzea, beronen bidez ikaslearen gaitasunak indartzeko eta dituen interesen eta gaitasunen arabera ondo orientatzeko.
- ❖ Irakaslegoaren eguneratze didaktiko eta teknologikoa butzatzea.
- ❖ DBHn batez ere, aniztasunari erantzuteko ekintzak programatzea eta Hezkuntz Premia Bereziak dituzten ikasleei laguntza espezializatua (ahal den era normalizatzaileenean) eskeintzea.
- ❖ Gurasoei zuzenduriko formakuntzarako ekintzak bultzatzea.
- ❖ Institutuak bere inguruko instituzioekin dituen harremanak sendotzea: Foru Aldundia eta Udaletxeetako Gizarte Zerbitzuak,

gainontzeko ikastetxeak, Berritzegunea, EHU eta beste unibertsitateak, Lanbide, INEM, eta abar.

### **3.- ANTOLAKUNTZARAKO OINARRIAK**

Finkatutako helburuak lortzearren, gure erakundea era eraginkor batetaz antolatu behar da. Egitura osoa, Antolakuntza- eta jardueraraudia (AJA) izeneko kudeaketa-dokumentuan jasotzen da. Hemen, aldiz, oinarriak, eremuka.

#### **3.1.- Aginte organoak.**

3.1.1.- ORIXE BHIk Euskal Eskola Publikoaren Legean aurreikusi diren taldeko aginte-organok nahiz lagun bakarreko aginte-organok izango ditu. Organo, horiek EEPLn ezarritako eskumenak eta eskuduntzak izango dituzte.

a) Taldekoak: OOG, irakasleen klaustroa eta zuzendaritzako taldea.

b) Lagun bakarrekoak: zuzendaria, ikasketaburua eta idazkaria.

3.1.2.- Ikasturte bakoitzean ikastetxean dagoen ikasle kopuruaren arabera eta ikasturteko Antolakuntza Ebazpenean xedatutakoarekin bat etorriz, ORIXE BHI n, arestian aipatutakoez gain, lagun bakarreko beste aginte-organo batzuk egon daitezke. Lagun bakarreko organo horiek Antolakuntza Ebazpenean zehazten diren eskumenak eta funtzioak izango dituzte, baita aurreko paragrafoan aipatu diren organoek eskuordetzen dizkietenak ere.

#### **3.2.- Hezkuntza-komunitatearen partaidetza**

OOGren bidez, ikasleek, ikasleen gurasoek, irakasleek, administrazioko langileek, zerbitzuetako langileek eta Udalek ORIXE BHIren kudeaketan parte har dezakete.

#### **3.3.- Koordinazio didaktikorako organoak**

Tutoreen taldeak, taldeko, etapako eta zikloko irakasle taldeak ORIXE BHIko koordinazio didaktikorako organoak izango dira. Organo hauek, klaustroaren, Koordinazio Pedagogikorako Batzordearen, didaktika-departamentuaren eta orientazio-departamentuen zuzendaritzapean egongo dira.

Ager daitezkeen beharrei erantzutearren, beste koordinazio organoak sor daitezke. AJAn islatuko dira.

#### **3.4.- Kanpoko koordinazioa**

Ikastetxe askotatik etortzen dira ikasleak Orixe Institutura. Denekin koordinazio pedagogiko sendoa ematen da:

- 3.4.1.- DBH egitera gehienbat Samaniego ikastetxetik etortzen dira, eta nahiz eta kopuru txikiagoa izan, inguruko herri txiki eta eskola txikietatik esanguratsua den beste talde bat.
- 3.4.2.- Orixe institutuko ikasleek DBH egin eta gero Batxilergoa edo Heziketa Zikloa egin dezakete. Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Hezkuntzako Institutuarekin koordinatzen da azken bide hau jarraitu nahi duten ikasleak orientatzeko. Baita ere HLPP eta ZIG aukeretan.
- 3.4.3.- Kanpotik batxilergoa egitera Orixe Institutura etortzen diren ikasleak, gehienbat bi ikastetxetatik etortzen dira: Alegiko Aralar eta Villabonako Erniohea Institutuetatik. Horregatik mintegi iraunkorrak sortu dira arlo bakoitzean, eta lan egiten dute hiru Institututako ikasleek programazio berdinak izan ditzaten. Mintegi hauetan hiru ikastetxeetako irakasleek parte hartzen dute.
- 3.4.4.- Santa Lutzia Hezkuntza Guneak koordinazioa du bere ardatza. Arazo komunei erantzuteko Tolosako Udalarekin eta beste erakundeekin harremanetan dago. Honetaz gain, hainbat ekintza elkarrekin antolatzen dira.

### **3.5.- Zerbitzuak**

#### **3.5.1.- EZ AKADEMIKOAK**

Jangela eta garraioa.

Gure gizarte honek izan dituen aldaketak direla eta, sortu dira hainbat behar. Hori dela eta, Orixe eskeintzen ditu bai jangela DBHko ikasle guztientzat bai garraioa tolosarrak ez direnentzat. Batxilergoan dauden ikasleak ordutegi intentsiboa dutelako ez dute jangelaren beharrik. Jangelara joaten diren ikasleek zaindariak dituzte eguerdian.

Kirol-eskola.

Samaniego Ikastetxearekin batera, kirol-eskola bat osatzen dugu. Talde ezberdinetan kirola praktikatzuz gain, ikasle zaharrenak, txikien monitoreak izaten dira.

Honako helburuak ditu:

- 1.- Ikasleen integrazioa, bai eskola mailan baita eskolen artean ere, harremanak bultzatuz eta sendotuz.
- 2.- Euskararen normalizazio lanetan eragile aktiboa izatea; hau da, euskararen erabilera kirolean normalizatzea.
- 3.- Ikastetxearekiko identifikazioa lortzea, eskolaz kanpoko ekintzen bitartez.
- 4.- Goi- mailako ikasleak kirol ekintzetako monitore lanetan integratzea.
- 5.- Antolatzen diren ekintzetan, kirol-teknika maila hobetzea.

- 6.- Osasun hezkuntza lantzea prebentzio mailan. Bide batez, kirola osasun iturri azaltzea.
- 7.- Zenbait balore indartzea: parte hartzea, lehiakortasuna, kiroltasuna, begirunea, etab.
- 8.- Bertako kirolak sustatzea.

Liburutegiak.

Institutuan bi liburutegi daude, bakoitza bere arduradunarekin. Gorosabel izeneko eraikinean dagoena, nahiz eta ikasleak 9:00etan sartu, goizeko 8:30etan irekitzen da (neguan, garraiatutako ikasleei babeslekua ematearren). Orixe eraikinean dagoenak honako ordutegia du: 9:00etatik 14:00etara (astelehen, astearte eta ostegunetan) eta 9:00etatik 13:00etara asteazken eta ostiraletan)

Liburutegiak ikasleek zein irakasleek erabiltzen dituzte. Ia 9.000 liburu daude eta institutuan inpartitzen diren irakasgaietan azal daitezkeen gai gehienak landu daitezke beraiekin. Internet ere erabil daiteke liburutegietan eta, noiz behinka, bileretarako erabili izaten dira.

Helburuak:

- ❖ ikasleak liburu, entziklopedia eta hiztegiak erabiltzen ohitzea. Baita, irakurtzeko zaletasuna beraiengan sortzea
- ❖ Liburutegietan dagoen informazioa bere interesetarako antolatzea eta bere ikasketetan aplikatzea.
- ❖ Honelako lekuetan izan behar duten jokaeran sakontzea.

### 3.5.2.- AKADEMIKOAK

Ikasleei Ikasketa-Lanbide Orientabidean laguntzeko, Institutuak Orientabide Zerbitzua dauka, bi orientatzaile aritzen direlarik.

## **4.- PLAN NAGUSIAK**

Legeak eskatzen duenaren arabera, Hezkuntza-proiektu honetan, hainbat plan eta programa islatuta egon behar dira, hala nola, Tutoretza-plana edota Elkarbizitza-plana. Hezkuntza-proiektua arintzeko asmoz, plan eta programa horiek bi zatitan banatuko ditugu: lehengoa, orokorra, hemen islatuko dena eta bigarrena, urtekoa, eranskinetan jasoko dena.

### **4.1.- TUTORETZA- PLANA**

**Ikasturte hasierako ebazpenetan zehazten den aren arabera,** Hezkuntza-proiektuak Tutoretza-plana edukiko du. Plan horrek tutoretza ekintzaren helburua jasoko du, baita orientazio eta jarraipeneko ekintzak ere, eta eskolaldi osorako ikasle guztientzat izango dira. Ekintzen helburua da ikasleak oinarritzko gaitasunak izatea, eta, horrela, norberaren proiektu pertsonal eta akademikoaren protagonista izatea. Plana tutore-taldeak egingo du orientatzaileekin batera; garatu egingo du, eta, ikasle guztiei erantzuteko zer hobetu behar den proposatuko du.

Derrigorrezko Hezkuntza eta Batxilergoko curriculumak ezartzen dituzten Dekretuen arabera, gure tutoretza-planak honako ezaugarriak ditu:

- a.– Hezkuntza Orientazioa hezkuntza-jarduerako laguntza-prozesu jarraia eta sistematikoa da, eta horren helburua ikasleei proiektu pertsonalaren eta profesionalaren jabe izateko gaitasunak lortzen laguntzea da.
- b.– Tutoretza Ekintzako Plana, Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren barruan, ikasle guztientzako ekintzak -orientaziokoak eta bestelakoak- antolatzen dituen egitura da, eta ekintza horiek banakakoak zein taldekakoak izango dira».
- c.– Plan hori garatzea tutoreari dagokio, irakasle-taldearekin eta talde horretan eragiten duten bestelako eragileekin koordinatuz. Halaber, ikastetxeko orientazioko profesionalen aholkularitza izango du, batez ere orientazio profesionalari dagokionez.
- d.– Ikastetxe bateko Tutoretza Ekintzako Planak gutxienez honako idatz-zatiak izango ditu:
  - d.1.- Tutoretzan aztertuko diren gaitasunak, helburuak eta edukiak (orientazio eta jarraipenekoak) ikasleen premietara egokitutakoak.
  - d.2.- Arlo ezberdinetan tutoreei dagozkien ekintzak: ikasleak, irakasle-taldea, familiak eta bestelakoak.
  - d.3.- Ikasturtean zehar ekintza horiek planifikatzea.
  - e.- Planaren ebaluazio-irizpideak

#### 4.1.1.- TUTORETZA-LANAREN HELBURU OROKORRAK

- a.- Ikasleek oinarrizko gaitasunak eskuratzea.
- b.- Bere taldeko ikasleen taldekako eta bakarkako jarraipena egitea, alderdi pertsonal, akademiko eta profesionalean.
- c.- Ikasleak orientatzea esparru pertsonal, akademiko eta profesionalean.
- d.- Bere taldeko irakasleak koordinatzea.
- e.- Guraso edo tutore legalekin koordinatzea, ikasleari buruzko informazioa ematea eta elkar-lanean aritzea.
- f.- Eskolaz kanpoko erakundeekin elkar-lanean aritzea.

#### 4.1.2.- TUTORETZAREN BIDEZ GARATU BEHARREKO GAITASUNAK

**Europako Parlamentuak** funtsezko zenbait gaitasun ezarri zituen **2005ean**, erreferentzia-esparru gisa. **Oinarrizko Hezkuntzako Curriculuma (Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen den curriculuma)** ezartzen duen Dekretuan honela zehaztuta daude gaitasun horiek:

- a) Gaitasuna kultura zientifikoan, teknologikoan eta osasun-kulturan
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna
- c) Matematika-gaitasuna
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- e) Gaitasun digitala eta informazioaren trataerarakoa
- f) Gizarte- eta hiritar-gaitasuna
- g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Gaitasun horien eraikuntza diziplina arteko eraikuntzat hartu behar da, eraikuntza globalizatutzat. Aurretik esan dugun bezala, tutoretzak berariaz landuko ditu gaitasun horietako batzuk.

**Batxilergoan, aldiz, oinarrizko gaitasunez gain, jarraian aipatzen diren gaitasun orokor hauek izango lirateke landu beharrekoak. Tutoretzan ere landu behar dira gaitasun horietako hainbat alderdi, bederen.**

- 1.- Erantzukizunez bizitzen ikasi.
- 2.- Ikasten eta pentsatzen ikasi.
- 3.- Komunikatzen ikasi.
- 4.- Elkarrekin bizitzen ikasi.
- 5.- Pertsona bezala garatzen ikasi.
- 6.- Egiten eta gauzei ekiten ikasi.

**Orientabidean eta Tutoretzaren helburutzat** Bigarren Hezkuntzako etapan garatu beharreko gaitasun hauek identifikatu ditugu:



- 1.- Nork bere buruaren ezagutza aztertzea eta errealitate soziolaboralari buruz autonomiaz hausnartzea, bere etorkizuneko proiektu pertsonala bere ahalmenen eta balioen arabera zehaztu ahal izan dezan.
- 2.- Norberaren esperientziak aztertzea eta egiaztatzea eta bere inguruko pertsona garrantzitsuak baloratzea, bere buruaren irudi positiboa, bere buruarekiko konfiantza eta eraginkortasuna lortzeko.
- 3.- Bizitzako esperientziak eta bere nahiz gizarteko gatazka-egoerak irizpidez aztertzea; horrez gain, hainbat aukera baloratzea, elkarrizketa oinarri hartuta erabaki arduratsuak hartzeko, besteekin eraikitze eta bere balioekin eta pentsaerarekin koherentea izateko.
- 4.- Ikasgelako eta ikastetxeko bizitzan gogo biziz parte hartzea, eta, elkarbizitza-arauak errespetatzeaz gain, bertako funtzionamenduarekin lotutako ekintzetan eta erabakietan inplikatzeko; horrela, herritar arduratsu, adeitsu eta kritiko gisa jokatu du.
- 5.- Jarrera irekia mantenduz, eskola-jarduerak gauzatzeko moduari eta egindako ahaleginari buruz hausnartzea; horrela, bere eskola-errendimendua ebaluatu eta beharrezko dituen hobekuntzak sartuko ditu, eta, horrez gain, ondo egindako lana baloratuko du.
- 6.- Inguruko pertsonekin elkarlanean ikuspegi sortzailez aritzea, eta beste pertsonen bidez bere pentsamendua eraikitze, ideiak eta esperientziak partekatzeko, taldean lan egiteko eta komunikazio-sareak ezartzeko duen beharra baloratzea.
- 7.- Bidegabekeria- edo indarkeria-egoerekiko kritiko agertzea eta aniztasuna onartzea eta errespetatzea; horrela, kultura arteko gizarte honetan, bere portaera bat etorriko da justizia-, berdintasun-, bake- eta elkartasun-balioekin.

#### **4.1.3.- TUTOREAREN ESKU-HARTZE EREMUAK, OINARRIZKO HEZKUNTZAN**

Tutorearen zeregin horiek guztiak ondo zehaztutako hiru jardueraren eremu hauetan garatzen dira:

1. eremua: Zuzenean ikasleekin garatu beharreko ekintzak, bai taldean, bai banaka ere.
2. eremua: Irakasleekin banaka eta gelako irakasle-taldearen parte gisa garatu beharreko ekintzak.
3. eremua: Ikasleen familiekin eta/edo legezko arduradunekin eta beste gizarte-eragile batzuekin garatutako ekintzak.

#### **4.1.4.-- TUTOREAREN ZEREGINAK**

##### **1.- Ikasleei lotuta:**

Bai taldearekin, bai banaka ere, zeregin hauek beteko ditu:

- Ikastetxean eta lagun-taldean ondo integratzen laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezatela bultzatzea.
- Une berezietan ikasleei aholkuak ematea: ikastetxe berrian sartzean, hezkuntza etapa aldatzean, hautazko ikasgaiak aukeratzean, lan mundura igarotzean...
- Ikasketei begira eta lanbide arloan informazioa eskuratzea erraztea eta erabakiak hartzeko ikaskuntza egoerak sortaraztea ikasleen autoorientazioa bultzatuz.
- Ikasleen ikasketa prozesuen jarraipen orokorra egitea, hezkuntza laguntza egokia emateko.
- Ikasleen eskaerak, kezak, kexak...bideratzea, eta taldeko ordezkariarekin eta ordezkariordearekin lankidetzan, gainerako irakasleen eta zuzendaritza-taldearen aurrean bitartekotza egitea, sortzen diren gaitan.
- Orientatzaileak lagunduta, urteko programa malgu baten bidez, talde tutoretza-saioak prestatzea eta gauzatzea.

Zeregin hauek bideratzeko tutoreak baliabide hauek erabiliko ditu:

- Tutoretza-ordua taldearekin astero:
  - Asteroko tutoretza-orduan, Tutoretza Plan honetako jarduerak burutuko ditu taldearekin.
  - Tutoretza-ordua ikasturtean sortzen diren egoera eta beharrak lantzeko ere erabiliko ditu.
  - Orientatzailearen ardura izango da, tutoreei tutoretza-orduetarako proposamen desberdinak luzatzea (gaiak, metodologiak, materialak...), eta tutoreena, material horiek aztertzea, ondoren, denen artean taldeen egoera eta beharren arabera zein den egokiena erabakiz.
- Tutore-bilera astero (orientatzailea eta koordinatzailearekin):
  - Tutoretza-orduan ikasleekin taldeka burutu beharreko jarduerak prestatzeko, asteroko maila bereko tutoreen bileran parte hartuko du.
  - Bilera horiek zailtasunak dituzten ikasleen jarraipena egiteko ere erabiliko dira.
  - Bilera horietan taldeetan sortutako beharrak aztertu eta gurasoekin egin beharreko bilerak eta elkarrizketa bereziak ere prestatuko dira.
  - Foro honetan tutoreek beren kezak, proposamenak, eta abar adieraz ditzakete.
  - Bilera hauetan sortutakoak, orientatzaileak eta koordinatzaileak zuzendaritzari luzatuko dizkiote.
- Bakarkako elkarrizketak ikasleekin:
  - Tutoretzari dagozkion gaitasunak lortzearen, bakarkako elkarrizketak erabiliko ditu tutoreak.
  - Beharren arabera elkarrizketa formalak edo ez-formalak izango dira.
  - Elkarrizketa hauek ebaluazio bakoitza bukatutakoan izango dira batez ere. Helburuak:

- Irakasleek ikaslearen ikasketa-prozesuari buruz dituzten iritziak ikasleari jakinaraztea.
- Ikasleak bere ikasketa prozesuari buruz dituen iritziak, beharrak, e.a. tutoreak jasotzea
- Ikasleak Lanbide Orientabidearen barruan dituen interesak eta asmoak ezagutzea.
- Ikaslearekin pertsona-mailako alderdiak lantzea.
  - Tutorearekin horrela adostuz gero, orientatzaileak ere izango du elkarriketa ikaslearekin, tutorearen lana osatzeko edota bere prestakuntzari dagozkion alderdi zehatzak jorratzeko.
- Orientazio-aholkua. Honek une berezietan aparteko garrantzia izango du:
  - 3. mailaren bukaeran 4. mailako aukerakoak erabakitzeke unean.
  - 4. mailaren bukaeran Erdi Mailako Ziklo edo Batxilergoan aurre-matrikula eta matrikula egiteke unean.
  - DBHko graduatua lortu gabe, institutua uzterakoan.

## **2.- Ikasle-taldearen irakasleei lotuta**

- Bere taldeko irakasle-taldea koordinatzea, bai programazioan, bai ebaluazioan, bai irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuko banakako egoeren eta egoera orokorren azterketan. Tutoreek hiru bilera egin beharko dituzte gutxienez ikasturteko taldeko irakasleekin, ebaluazio-saioetatik kanpora. Tutoreak bilera horien berri eman beharko dio ikasketaburuari, eta honek egingo du bilera horietarako deia.
- Tutoretza plana jakinaraztea, adostea eta garatzea, planetik sortzen diren jardueretan esku hartzera eta elkarlanean aritzera bultzatuz.

Ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa ematea maila horretako irakasleei, eta emandako informazioak ebaluazioan eta hezkuntza harremanetan duen inplikazioa jakinaraztea.

Irailean, irakasle taldea bilduko du, ikasleei buruzko informazioa emateko.

Urrian CNE bilera bat egitea irakasle guztiekin, barruko egokitzapenak erabakitzeke.

- Bere taldeko ikasleen ebaluazio-prozesua koordinatzea, eta ebaluazio prozesua egiteko saioak antolatzea eta saioen buru izatea. Ekintzak:
  - ❖ Taldearen irakasleekin ebaluazio bileren prestaketaz eta koordinazioaz arduratu
  - ❖ Hiruhilabetearen erdialdean Hasierako Ebaluaziorako bilera burutu
  - ❖ 3. hiruhilabeteetan erdialdean, ikasleen jarraipenerako bilera burutu
  - ❖ Hiru ebaluazioetan ikasle bakoitzari buruzko informazio idatzia jaso, "Ebaluazio orria" erabiliz.

- Curriculumaren egokitzapenetan laguntzea: curriculum-egokitzapenak, hezkuntzan berariaz esku hartzeko proiektuak, curriculum-aniztasuneko programak, premia bereziak dituzten ikasleentzako indartze jarduerak eta haien hezkuntzan esku hartzeko jarduerak.
  - Ikasleen ikasketa –zailtasunei erantzutea, eta , ahal izanez gero, aurre hartzea, programazioari beharrezko egokitzapenak eginez, eta banakako hezkuntza premiei ere erantzutea, horrela, beharra ikusiz gero, curriculum-egokitzapena egiteko.
  - Ikasgaien estatistikak eta ikasketaburuak eskatzen dituen datu guztiak betetzea, bai eta tutoretza lanetik sortutako ikasleen ikasketa agiriak ere.
  - Irakasle-taldearen aholkularitzarekin, eskola orientaziorako “aholku orientatzailea” izeneko txostena egitea, familiak jakinaren gainean jartzea eta ikasleak orientatzea.
  - DBHn tutoreak, irakasle taldearen eta orientazio zerbitzuaren banakako eskola-orientazio txostena egingo du, familiei informazioa eta ikasleei orientazioa emateko, dauden aukeren artean hautaketa egokia egin dezaten. Txosten hori etapa amaieran egingo da gutxienez, eta baita aparteko inguruabarrek ala eskatzen badute; esaterako, ikasle batek zikloz edo ikasturtez igaro behar ez badu. Txosten horiek guztiak ixilpekoak izango dira.
- Ebaluazioetan eta ekainean ohiko eta ez-ohiko ebaluazioetan akta osatuko du.

### **3.- Familiei edo legezko tutoreei eta beste gizarte-eragile batzuei lotuak:**

- Ikastetxearen eta hezkuntza etaparen berri ematea gurasoei edo legezko tutoreei.
  - ❖ Harrera Programan jasota dagoen bezala, hau burutzeko ikasturte hasierako gelakako bilera egingo du gurasoekin. Helburuak: tutorea, ikastetxea eta ikasturtea aurkeztea, zenbait arau lantzea, eskolaz kanpoko ekintzen berri ematea,...
  - ❖ Behin ikasturtea hasita, ikasleren bat matrikulatuz gero, bere gurasoekin elkarrizketa egingo du, aurreko atalean jasotakoa azaltzeko.

#### **BAKARKAKO ELKARRIZKETAK GURASOekin. HELBURUAK**

- ✓ Banakako hezkuntza-prozesuaren jakinaren gainean jartzea, eta lankidetzat eskatzea.
- ✓ Familiak eman dezakeen informazioa jasotzea, ikaslea eta haren familia testuingurua hobeto ezagutzeko.
- ✓ Gurasoei aholkularitza ematea.
- ✓ Seme-alabak irakaskuntza-jardueretara azaltzen diren eta jardueretan parte hartzen duten jakinaraztea ikasleen

gurasoei eta legezko tutoreei, eta haren hezkuntza-prozesuaren berri ematea:

- Lehenengo eta azken ebaluazioaren ondoren, tutoreak gurasoekin banakako elkarrizketa izango du, ikaslearen prozesuari buruz informazioa emateko, gurasoengandik informazioa jasotzeko, hezkuntza-prozesua bateratzeko eta orientabideak gurasoei emateko. Elkarrizketa hauetan, ebaluazioan sorturiko materialaz gain (ebaluazio-txostenak, ...), tutoretza-orduetan ikasleak sorturiko materiala erabiliko da: inkestak, galdesortak...
- 4. mailan, bigarren elkarrizketa maiatzean izango da orientazio aholkua garaiz eman ahal izateko.
- 3. eta 4. mailako gurasoek bilera bat izango dute orientatzailearekin 2. hiruhilabetean, Lanbide Orientabideari buruzko informazioa jasotzeko.

Eskola-jarduerekin lotutako gai guztiei buruzko informazioa ematea ikasleei, haren gurasoei eta/edo legezko tutoreei, haiek irakasleengana edo ikastetxeko aginte-organotara jotzeko duten eskubidearen kalterik gabe.

Tutorearen asteroko bisitaren ordutegia jakinarazi beharko die ikastetxeak familiei.

- ✓ Familien parte hartzea bultzatzea ikastetxean.
- ✓ Gizarte-Zerbitzuen laguntza jasotzen duten familien kasuan, orientatzailearen laguntzaz, gizarte-eragileekin koordinatuko da.

#### **4.1.5.- TUTORETZA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA**

Ikasturtean, maila bakoitzeko tutore-taldeak tutoretza-planaren garapenaren jarraipena egingo du.

#### **4.2.- ELKARBIZITZA PLANA**

Ikasleengan gatazkak eta arazoak ebazteko konpetentziak garatzen duen hezkuntza da. Hezkuntza honek garatuko ditu ikasleengan behar dituzten konpetentziak ondorengo helburuetarako: erantzukizunez beraien bizitzaren kudeaketa onartzeko, norberarekin zein besteekin harreman positiboak eratuzeko, erabakiak hartzeko eta zentzu kritikoarekin jokatzeko.

Atal hau ere, legeak eskatzen duenaren arabera, Hezkuntza-proiektu honetan kokatu behar dugu. Plana bi zatitan banatzen dugu: lehengoa, orokorrena, hemen islatzen dena da. Bigarrena, urtekoa, eranskinetan jaso dugu.

HELBURUAK:

- Metodologia desberdinak ezagutzea/erabiltzea eta aniztasunari erantzuteko tresnak ezagutzea.
- Ikasleei erakutsi metodologia desberdin bakoitzarekin agertu beharreko jarrera egokia izaten.
- Irakasleak eta ikasleak baloratuak, motibatuak eta gustura sentiaraztea.
- Irakasleen arteko kohesio eta koordinazioa hobetzea.
- Arauak ikasleekin aztertu eta adostea.
- Bizikidetzan irakasleek prestakuntza jasotzea.
  - Muturreko kasuetan nola jokatu.
  - Disrupzioa nola gutxitu.
  - Elkarbizitzako baloreak nola landu (errespetua, berdintasuna...).
  - Elkarbizitza denon zeregina.
- Gizarte trebetetasunaz nola baliatu irakatsi.
- Ikasleengan autodisziplina garatzea.
- Ikasleengan ahalegintzearen kultura sustatzea.
- Irakasleen lana erraztu.
- Ekintza kulturalak, festak, kirolak... bultzatzea, irakasle eta ikasleen partaidetza bultzatuz.
- Irakasle guztiengan beren lanaren betetze-mailari buruzko hausnarketa sustatzea.
- Legea, araudia eta prozedurak ondo ezagutzea.
- Irakasle desberdinen gain dauden erantzukizunak, lanak eta betebeharrak betearazteko mekanismoak ikertzea.
- Irakasleok adimen emozionala hobetzea.
- Kritikak elkarri egiteko prestakuntza jasotzea eta ondoeza sortzen duten egoeren aurrean modu egokian erantzuten ikastea.
- Kritika horiek egiteko espazioak eta uneak ahalbidetzea.
- Irakasleen arteko koordinazioa areagotzea, jarrera parte-hartzaileak sustatzea eta adostasunak lortzeko bideak jorratzen ikastea.
- Irakasleen kohesioa handitzen duten ekintzak bilatzea eta norberaren burua ikastetxearen parte sentiarazteko eta baloratu izateko jarduerak arakatzea.
- Lanaren banaketa justua zein den hausnartzea.
- Zenbait irakaslek une jakin batean duten karguarengatik edo proiektuetan/jardueretan... duten inplikazioarengatik dagozkien eskumenak ulertzea eta onartzea.
- Irakasleen inplikazioak izan ditzakeen sariak, onurak edo abantailak hausnartzea.
- Lan-zama edo erantzukizunak konpartitzeko, txandakatzeko edo esleitzeko moduak aztertzea.
- Irakasleen jardunean proposatzen diren aldaketak kritikoki baloratu eta hobetzeko aukera bezala hartzen jakitea.
- Jarrera inobilistak onura baino kalte gehiago sor dezaketela onartzea.

### **4.3.- IKT IKASTETXE EREDU PLANA**

2007-2008 ikasturtean Hezkuntza Sailak "IKT ikastetxe eredua" izeneko programa martxan jarri zuen. Orixe Institutuan erabaki zen programa horretan parte hartzea eta horrela eskatu genuen, eta Hezkuntza Sailak gure proiektua onartu zuen.

Programa horren barruan ikastetxeko "IKT Batzordea" martxan jartzea derrigorrezko baldintza bat zen eta guk horri jarraituz ikasturte horretatik aurrera Orixe Institutuko IKT Batzordea martxan jarri genuen.

IKT Batzordea ikastetxeko **IKT planaren** talde koordinatzailea izan behar da.

Hiru helburu nagusi ditu aurten IKT Batzordeak:

- ❑ Ikastetxeko baliabideen erabilera arautu eta indartzea
- ❑ Eskola 2.0 programa ezartzea
- ❑ IKT ikastetxe heldutasun eredua lortzea.

### **4.4.- "MUGEN GAINETIK" IZENKO-PLANA**

2010-11 ikasturtetik hasita Orixe BHIren konpromezua mugak gainditzeko eta bere izena nazioartean azal dadin argi eta garbi dago. Horren lekukoak dira "Zubiberri 2.Orixe"n dagoen ildo estrategikoa atzerriko hizkuntzei buruz. Zubi berri bat mundura begira eta ikastetxearen leloa "Mundu zabalerako zubia "

#### **Helburuak**

- Ildo horri jarraituz hizkuntzen garapena eta zabalkuntza da helburu nagusia.
- Nazioarteko ikuspuntua geroz eta gehiago zabaltzea.
- Mundu zabalean bizitzeko prestakuntza ematea.
- IKT erabilpena sustatzea.

#### **Ekintzak**

Horretarako martxan dauden ekintzak hauek dira:

- **Ikastetxeko elkartrukeak (Herbehereetako Sint Ursula ikastetxearekin, urtekoa, esatebaterako)**
- **Comenius Regio** proiektua herri mailan **Tolosa** eta **Cardiff** artean, hizkuntzen garapenerako eta eskola komunitateari begira (2 urtekoa).

Nazioarteko proiektuak aurrera eramateko zenbait plataforma digital erabiliko ditugu, hala nola **eJournal**, ....

Azkenik, ez dugu baztertzen beste egitasmotan parte hartzea Europako zein beste lurraldeetako ekintzetan.

#### **4.5.- "ZIENTZIAREN EZAGUTZA SUSTATZEKO" PLANA**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak alfabetatze zientifikoa eman behar die pertsona guztiei. Alfabetatze horren bidez, ikasleek zientziaren izaera eta praktika zientifikoa ulertzeko gai izan behar dute; zientziak, teknologiak eta gizarteak dituzten harreman konplexuez jabetu behar dute, eta gainera, erabaki pertsonalak hartzen eta tokiko eta munduko arazoei buruz erabakiak hartzean kritikoki eta arduraz jokatzeko lagundu behar die alfabetatze horrek.

- ❖ "Ikt ikastetxe eredua" heldutasun teknologikoari dagokion ziurtagiria lortzeko bidean gure ekarpenak honakoak izan dira:
  - Moodleren plataformaren sarrerako eta sakontzeko hainbat ikastaro
  - Ariketa digitalak prestatzeko ikastaroa
  - Google tresnak ezagutzeko ikastaroa
  - Ikastetxeko orixemoodleren plataforman 4 ikastaro sortu eta kudeatu.

#### **2.- PROIEKTUAREN HELBURUAK:**

- ❖ Testuinguru edo egoera askotarikoek eskatutako jakintza, trebetasunak, jarrerak eta balioak konbinatzea.
- ❖ Zientziak, gaur egungo gizartean, mundua eta munduan gertatzen diren aldaketak ulertzeko ezinbesteko tresna denez, oinarrizko gaitasunak garatzea eta eskuratzea.
- ❖ Oinarrizko ezaguera zientifikoak ezinbestekoak direnez, gizartean garrantzi handia duten gai askori buruzko informazioa interpretatzea eta balioztatzea.

#### **5.- IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUAREN EBALUAZIO ETA BERRIKUSKETA**

Ebaluaketaren alderdiak.

- ⇒ *Proiektuaren diseinua, egitura egokitasuna.*
- ⇒ *Helburuen baliotasun eta zuzentasuna.*
- ⇒ *Antolakuntzarako oinarrien egokitasuna*
- ⇒ *Oinarrizko Planen buruketa eta helburuak lortzeko egokitasuna.*

Irizpideak.

- **Diseinurako:** Luzetasuna, sakontasuna, ulermena eta ordena. Berdin, ikastegiaren tipologia, ikaslego, irakaslego eta ahalbideei egokitasuna.



- **Helburuetarako:** Formulazioa, pertinentzia, argitasuna, gure errealitatearekin duten lotura maila, baliabilitatea, e.a.

- **Antolakuntza-oinarrietarako:** Organoen beharra. Esleitutako eginkizun eta betebeharren zulentasuna.

- **Oinarrizko Planetarako:** Betetze edota gauzatze maila eta hutsegiteen arrazonamendua. Helburuak lortzeko, gaitasunak eskuratzeko egokitasuna. Eragile eta jasotzaileen atsegingarritasuna.

Teknikak eta tresnak.

Eragile eta jasotzaileen iritzien bilketa zuzena: eztabaidetan, elkarriketetan, galde-sorten bidez, e.a. Autobehaketa eta kanpoko behaketa.

Uneak.

- **Ezaugarrietarako:** Lege eta araudien aldaketetetan. Egoera aldetzen denean. Bost urten behin berrikusketa bat egitea komenigarria da.

- **Helburuetarako:** Betetze maila, epe ertainean. Urteko memorian aipamenak egin daitezke.

- **Antolakuntza-oinarrietarako:** AJAren berikusketetan. Urteko plana eta memoria egiterakoan proposamenak jasoko dira.